

TXOSTENA: JARDUERETAN EMANDAKO AURREPAUSOAK



elika 2010

AURKIBIDEA

1. IKUSPEGI OROKORRA

- 1.1. Aginte Taula
- 1.2. Emaidza esanguratsuenak

2. EMAITZA ESANGURATSUENAK: JARDUERAK

- 2.1. Arriskuak Balioztatzea
- 2.2. Elikakatea
 - 2.2.1. Abeltzaintza
 - 2.2.2. Animalien Elikadura
 - 2.2.3 Elikagaien industria
- 2.3. Elikagaien Segurtasuna Aztertzea
- 2.4. Zaintza teknologikoa

3. EMAITZA ESANGURATSUENAK: BARNE KUDEAKETA-ANTOLAKETA

- 3.1. Pertsonak
- 3.2. Interes taldeak
- 3.3. Barne hobekuntzarako prozesuak
- 3.4. Ezagutza kudeatzea
- 3.5. Gobernu arduratsua
 - 3.5.1. Erantzukizun Sozial Korporatiboa
 - 3.5.2. Arriskuak Kudeatzea
- 3.6. Ekonomia eta aurrekontuaren bilakaera

1. IKUSPEGI OROKORRA

Bigarren seihileko hau markatu du zuzendari-gerentearen aldaketak. Horrek erakundea zer den eta zer izan beharko lukeen hausnartzera eraman ditu zuzendaritza berria zein ELIKAko pertsonak.

Beraz, bigarren seihileko honetan azpimarratzekoa da **ELIKAren Plan Estrategikoa 2011-2012 onetsi dutela** Fundazioko patroiek. Honako hauek dira jarraitu beharreko ildo estrategikoak:

- Erakundearen zeharkakotasuna lortzea.
- Komunikazioa eta informazioa sustatzea.
- Gizarteak erakundea aintzat hartu dezan lortzea.

Ildo horiei esker, datozen urteotan **ELIKAren ikuskera berria** lortu ahal izango dugu:

EAEko elikagaien segurtasun arloko eredu integratua sustatzea eta laguntzea. Eta, horretarako, ezagutza eta berrikuntza eskaintzea, eta erakunde publiko zein pribatu guztien parte-hartzea sustatzea.

Halaber, **berriro definitu da ELIKAren eginkizuna**. ELIKA honako zerbitzu hauek garatzen dituen erakundea da:

- Teknika eta zientzia aholkularitza eskaintzen die nekazaritza, elikagai, abeltzaintza, arrantza, kontsumo eta osasun arloko sail eskudunei.
- Lankidetzaren sustatzen du herri administrazioen, unibertsitate eta ikerketa zentroen, ekoizpen sektoreen eta kontsumitzaile elkarteen artean.
- Elikagaien kontsumoak eragin litzakeen arriskuekiko herritarren esposizioa balioesten du elikakateko fase guztietan. Horretarako, gerta litezkeen arrisku biologikoak, kimikoak, fisikoak edo ingurumenekoak identifikatu eta karakterizatu egiten ditu.
- Administrazioei, nekazaritzako elikagaien sektoreari eta kontsumitzaileei zuzendutako prestakuntza-programak sustatzen eta garatzen ditu.
- Zientzia- eta teknologia-informazioa hedatzen du, elikagaien segurtasun arloan.

Eta horretarako, honako hauek dira erakundearen **balore berriak**:

- **LANKIDETZA:** Gure interes-taldeak inplikaturiko ditugu gure eginkizun eta ikuskeran, horiek baitira prozesua errazten dutenak. Horretarako, parte hartzea babestu, sustatu eta aitortu egingo dugu.

- **PROFESIONALITASUNA:** Balioa eranstean duten zerbitzuak eta proiektuak lortzeko egingo dugu lan, eta eskaintzen ditugun jardueretan kalitatea eta erabilgarritasuna izango dira oinarritzko elementu. Horretarako, beharrezkoak diren esperientzia eta ezagutzak izango dituzte langileek.
- **KONPROMISOA:** Erakundearen xedek geure egin eta integratu egingo ditugu, eta langileak xede horiek lortzera bideratu egingo ditugu.
- **PARTEKATZEA:** Ezagutza eta sortzen dugun informazioa guztia hedatuko ditugu gure interes-taldeen artean, eta gardentasunez jokatu dugu erakundearen kudeaketan eta prozesuetan.

Ondorioz, hauek dira emaitza esanguratsuenak:

- ELIKAREN Plan Estrategikoa 2011-2012 onestea.
- Berriz definitzea erakundearen ikuskera, eginkizuna eta baloreak.

1.1. Aginte Taula

FCE	Helburu orokorrak	Adierazlea	2009	2010	2010erako xedea	
SAn eskudunak diren entitateak inplikatzeko	Sendotzea administrazioari aholkularitza zerbitzua emateko entitate gisa: aitortza	DMAPTAPI eskaintako produktu kopurua	31	35	28	
		Erakundeeri eskaintako ikastaro/jardunaldi kopurua	1	3	2	
		Zerbitzuen gogobetetze maila	78,6	---	80	
		ELIKABerrin erregistratutako erabiltzaile kopurua	682	805	720	
ITn (administrazioa, lehen sektorea, elikagaien sektorea eta gizartea) beharrei eta eskaerei emandako erantzuna	Lehen sektorean eta elikagaien sektorean irabazitako jarrera indartzea: egungo maila sendotzea	Elikagaien sektoreari eskaintako produktu kopurua	8	8	11	
		Sektoreari eskaintako ikastaro/jardunaldi kopurua	14	8	11	
		WEB orriko bisita kopurua (batez beste)	7885	11.332	10000	
		IT moduan gizartean dugun maila: Sarrera			100%	100%
		Gizartearen gogobetetze maila	72%	---	80%	
Eskuragarri ditugun baliabideak (pertsonak eta gainontzekoak) era egokienean esleitzea	Barne eraginkortasuna	Kudeaketa	EFQM autoebaluzioaren emaitzak (puntuak)	274		300
			Barne eraginkortasuna: errendimendurako zehaztutako helburuak zein mailatan bete diren	76%	>96%	77%
	Pertsonak		Prestakuntzarako ordu kopurua	165	240	556
			Pertsonen gogobetetze maila orokorra	6,43	---	6,8
			Konpromisoan hartutako gastua eta aurreikusitako gastuaren zatikia zein %tan bete den	100%	100%	100%

1.2. Emaitza esanguratsuenak

Kudeaketa Planaren ondorioz, honako emaitza hauek izan dira nabarmentzekoak:

- Elikaketea Kontrolatzeko Planean parte hartzea, eta Nekazaritza eta Abeltzaintza zein Arrantza eta Akuikultura zuzendaritzeari aholkularitza zerbitzua eskaintzea garatzen ari diren programen gainean.

- ItsasMendikoi-Derion administrazioari eta teknikariei zuzendutako jardunaldia, Elikakatea Kontrolatzeko Plan Nazionalari buruzkoa, antolatzen laguntzea.
- Elikagaien Segurtasun arloan Ikerketa Mahaia abiaraztea, arlo horretan ikerketa koordinatzeko helburuarekin.
- Arriskuen Identifikatzaileen III. Topaketa antolatzea. Helburua zen jakinaraztea Arriskuak Balioztatzeko ezinbestekoa dela aurretik Arriskuak Identifikatzea.
- Lehen sektoreari, animalien elikadura arloari eta elikagaien industriari prestakuntza ematea.

Barne jardueri dagokienez, hilabete hauek eman ditugu proiektuak kudeatzeko sistema berria definitzen. Horretarako, lan metodologia zehaztu dugu, denbora optimizatu dugu, eta abar.

Halaber, urtearen bigarren seihileko honetan, Gobernu Arduratsuaren Gida ezarri dugu eta Erantzukizun Sozial Korporatiboari (RSC) eta Arriskuak Kudeatzeari buruzko eskakizunetan aurrerapausoak eman ditugu.

2. EMAITZA ESANGURATSUENAK: JARDUERAK

2.1. Arriskuak Balioztatzea

Arriskuak Balioztatzeko Arloan, hurrengo une garrantzitsuak azpimarratu nahi ditugu:

- EAEko Elikagaien Segurtasun Arloko Zientzia Batzordeak zientzia irizpen bat argitaratu zuen 2010eko azaroan:
 - “Q sukarrak Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrentzat izan lezakeen arriskua balioztatzea”.
- Arriskuen Identifikatzaileen III. Topaketa antolatzea. Helburua zen jakinaraztea Arriskuak Balioztatzeko ezinbestekoa dela aurretik Arriskuak Identifikatzea.
- Artikulua: Dioxinak, Furanoak eta Dioxinen antzeko PCBak – Berezi@ 4.
- Artikulua: Merkurioa elikagaietan- – Berezi@ 5.
- Artikulua: Q sukarra – Berezi@ 6.

2.2. Elikakatea

2.2.1. Abeltzaintza:

- Elikakatea Kontrolatzeko Plan Nazionalaren barruan, EAEn Abeltzaintzaren Higiene eta Osasunaren Kontrol Ofizialei eta Animalien Ongizatearen Kontrol Ofizialei buruzko programak egiteko talde teknikoetan parte hartzea.
- ItsasMendikoi-Derion administrazioari eta teknikariei zuzendutako jardunaldia, Elikakatea Kontrolatzeko Plan Nazionalari buruzkoa, antolatzen laguntzea.
- Laguntza teknikorako lege dokumentuak eta txostenak idaztea Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzarentzat, Elikagaien Segurtasunaren inguruan.
- Higiene Praktika Egokien gidak koordinatzea eta aholkularitza zerbitzua eskaintzea (ardien eta esnetarako behi-aziendaren ustategietan):
 - Lan taldea dinamizatzea.
 - Dokumentu teknikoak idaztea.
 - Lursailekin batera, horma-irudi bat aurkeztea Autokontrolerako IV. Kongresuan.
- Abeltzainei zuzendutako prestakuntza antolatzea eta ematea, ItsasMendikoiren bidez, Higiene eta Animalien Ongizate arloan.
- Osasun Alerta Sarearen (RASVE) bidez jakinarazitako alerta eta jakinarazpenak laburbiltzeko lauhileko txostenak eta 2010eko laburpena idaztea.
- Jardunaldi berezietara joatea:
 - Hegazti-hazkuntzari buruzko jardunaldi profesionalak (Iruña, 2010). Bertan, abere ongizateari buruzko legedia aplikatzeaz hitz egin zen; horrek goitik behera aldaraziko du sektorearen egitura.
 - Txerrien Ongizateari buruzko prestakuntza, MARMek antolatuta.

2.2.2. Animalien elikadura:

- EAEko animaliak elikatzeko lehengaien kalitate eta segurtasun plana idaztea.
 - Lanerako mahai teknikoa dinamizatzea eta koordinatzea.
 - 2010. urteko emaitzak aztertzea: kontrolerako programa hobetzea.
 - Lehengaiak kontrolatzeko plana hedatzea: egin daitezkeen jarduerak.
- EAEko pentsuak etiketatzeari buruzko gidaliburua argitaratu eta aurkeztea. Gidaliburua Elikagaien Kalitate Zuzendaritzak egin du, EPEArekin (Euskadiko Pentsu Ekoizleen Elkarte) eta ELIKArekin batera.

- Aztirekin batera Partzuergo kide gisa parte hartzea Europa mailako Life+ proiektu batean: Jarduera plan eraginkor eta bideragarria garatzea, industriadun eta elikagaiak banatzetik sortzen diren landare-hondakinak animaliak elikatzean aprobetxatu ahal izateko.
- Pentsuen arrisku mapa eguneratzea araudi berriaren arabera, substantzia kaltegarrien mugei dagokienez.
- Elikagaien Kalitate Zuzendaritzarekin eta Itsasmendikoirekin batera, pentsu fabrikei zuzendutako I. prestakuntza-ikastaroa antolatzea, pentsuak etiketatzeari buruz.
- Europako Alerta Sarearen (RASFF) bidez 2010. urtean jakinarazitako alertak eta jakinarazpenak laburbiltzeko 2010eko txostena eta laugarren lauhilekoko txostena idaztea.

2.2.3. Elikagaien industria

Elikagaien Industria Arloan, honako une garrantzitsuak azpimarratu nahi ditugu:

- Higiene paketeen malgutasunari buruzko txostena idaztea, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Elikagai Kalitaterako zuzendaritzak eskatuta.
- "Nutrizio Etiketa" liburuxka digitala egitea.
- Europako Alerta Sarearen (RASFF) bidez 2010. urtean jakinarazitako alertak eta jakinarazpenak laburbiltzeko bigarren eta hirugarren lauhilekoko txostenak idaztea.
- Produktuen etiketari buruzko legediaren gaineko informazioa garatzea, elikagaien sektoreen arabera. Halaber, 2011. urteko lehenengo seihilekoan, hainbat sektoreren 44 produktuentzako etiketa ereduak garatu eta informazio osoa CD batean banatuko dugu.
- Elikagaien Industriadunarako garrantzitsuak diren gaiei buruzko jardunaldietara joatea:
 - Jardunaldia: "Nekazaritzako elikagaien inguruko itunak", ACTAEk antolatuta.

2.3. Elikagaien Segurtasuna Aztertzea

Elikagaien Segurtasuna Aztertze Arloan, hurrengo une garrantzitsuak azpimarratu nahi ditugu:

EAEn

- Laguntza teknikoa ematea Berrikuntza eta Elikagaien Industria zuzendaritzari, Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketa Mahaia osatu eta abiarazteko, I+G+b eragile nagusien, administrazioaren eta Elikagai Segurtasun arloan lanean diharduten erakundeen artean arlo horretako ikerketa koordinatzeko xedearekin (2 bilera).
- Bost arlo estrategiko definitzea Elikagaien Segurtasun arloan Ikerketarako: arrisku kimikoak, arrisku biologikoak, elikagaien teknologia, trazabilitatea eta kontsumoa eta osasuna.
- EAEKo I+G+b eragileek egindako Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketen ildoak biltzea.
- “EAEn Elikagai Segurtasun arloko Ikerketarako Plataforma” on-line aplikazio informatikoa garatzea, Elikagai Segurtasun arloko informazioa eta ezagutza partekatzeko asmoz.

Europar

- Elikagaien Segurtasunerako SAFEFFOODERA-ERANETeko markoan jarraitzea:
 - 2011ko 3. deialdirako, Segurtasun arloko ikerketarako etorkizuneko ekintza estrategikoak identifikatzea.
 - Artikulua: “Euskadirentzat lorpenak, SAFEFFOODERAn parte hartzeagatik”.
- ELIKA gonbidatu zuten EFSAk antolatutako “Elikagaiek sor litzaketen Arriskuak: Identifikatzen Komunikatza” 15. zientzia-hitzaldira, Arriskuen Identifikazioan duen eskarmentuagatik.
- EUROFOODSAFETYNET - “Elikagaien Segurtasun arloko Ikerketa EB berrian” behatzaile gisa parte hartu zuen ELIKAK.
- Maiatzean sortu zen EREN- Sor litezkeen Arriskuen Europako Sareko kide izateko eskari ofiziala egin zuen ELIKAK.

2.4. Zaintza teknologikoa

Zaintza Teknologikorako Arloan, une garrantzitsu hauek azpimarratu nahi ditugu:

- WEB orriko edukiak dinamizatzea:
 - Atal berriak sortzea eta zeudenak berriz antolatzea.
 - Kontsumitzaileentzako 3 atal berri sortzea. EAEKo kontsumitzaileen elkarteekin adostu dira atal horiek.
 - Web orria elikatzea gaur egungo gaiekin eta lan-arlo guztietan (7 artikulua, 62 albiste eta iruzkindutako 12 albiste).
 - Legediaren datu-basea etengabe berritzea eta erabilera hobetzea.
- Bilaketa sistema hobetzea eta informazio interesgarriari buruzko artxiboa sortzea. Horretarako, honako hauek gauzatu behar izan dira:

- Datuak dokumentu artxibo sistema berria sartzea.
- ELIKAren dokumentu basea garbitzea eta dokumentu berriak indexatzea (katalogatutako 580 dokumentu baino gehiago ditu).

3. EMAITZA ESANGURATSUENAK: BARNE KUDEAKETA-ANTOLAKETA

3.1. Pertsonak

Motibazioa eta Aitortza:

Motibazio eta aitortza prozedura berrikusi egin dugu. Horretarako, motibazio-taldea dugu, Elikako pertsonen gogobetetze maila balioetsi duena. Ondorioz, motibazioa hobetzeko eta sustatzeko ekintzak identifikatu dira. Ekintza horiei lehentasuna eman zaie, ELIKAKo pertsona bakoitzarentzat duen garrantziaren mailaren arabera.

Prestakuntza:

- 2010eko prestakuntza plana balioetsi da, eta metodologian hobetu beharreko zenbait puntu antzeman dira, prestakuntza beharrak antzemateko eta plana egiteko. Puntu horiek datorren urtean landu beharko dira.
- ELIKAKo pertsonak egin dituzten ikastaro/jardunaldien gogobetetze maila 7 baino altuagoa da.

3.2. Interes taldeak

Ereduak eta aliatuak identifikatzea

- Koordinatu, esperientziak trukatu eta baliabideak era egokienean erabiltze aldera, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko gainontzeko elkarte/fundazioekin parte hartzea bi lan-taldetan:
 - Kalitaterako Taldea
 - Pertsonen Taldea

3.3. Barne hobekuntzarako prozesuak

Prozesukako kudeaketa: bigarren lauhileko honetan lanean jarraitu dugu, batetik, prozesuen kudeaketa sistema zabaltzen; eta, bestetik, ELIKAKo pertsonen inplikazioa lortzen. Horrela errazagoa izango baita barneratzea zer den prozesuak kudeatzea.

Honako hauek izan dira nabarmentzeko ekintzak:

- Prozesuak berrikusteko sistema definitzea.
- Prozesuak kudeatzeko sistema balioestea eta hobetu beharreko puntuak identifikatzea. Horiek datorren urtean landuko dira (adierazleak ezartzea,

prozesuaren dokumentazioa erraztea, prozesuaren arduradunen betekizunak aztertzea...).

3.4. Ezagutza kudeatzea

Gure jardueren berri ematen dugu bereziki web orriaren bidez, bai eta ELIKAberrri albiste-buletinaren bidez ere.

- Gure web orriak izan dituen bisitak 2010eko uztailetik abendura bitartean 10.538 izan dira.
- ELIKAberrri buletinak izan dituen erabiltzaileen kopurua seihileko honetan 805 izan da.

Erakunde barruan zabaltzeaz gain, gure ekintzak kanpoko komunikabideetan ere zabaltzen ditugu; eta horrek inpaktu handia du. Izan ere, seihileko honetan 52 aldiz agertu gara aldizkari berezituetan eta gure interesekoak diren bestelako web orrietan.

3.5. Gobernu arduratsua

3.5.1. Erantzukizun Sozial Korporatiboa

Erantzukizun Sozial Korporatiboa (RSC) estrategia korporatibo berria da, eta enpresen konpromisoa eskatzen du. Horretarako, sistematikoki aplikatzen dira hainbat baliabide; eta pertsonen eskubideak errespetatu eta sustatzea lortzeaz gain, gizartearen hazkundera eta ingurumena zaintzea ere lortzen da.

Ildo horretatik, ELIKAK egokitu egin du Gobernu Arduratsuari buruzko Gida EAEko sektore publikoaren entitate, elkarte eta fundazioetan.

Seihileko honetan garatutako ekintzak hauek izan dira:

- “Ezagut gaitzazu” atal berria sortzea web orrian. Bertan, jarduerari, aurrekontuei, adierazleei eta abarrei buruzko informazioa biltzen da.
- Ingurumen arloko jardunaldietara joatea:
 - Ihobek antolatutako Ingurumen Foroa, Euskadiko III. Ingurumen Esparru Programa 2011-2014 osatzeko prozesuaren barruan.
 - Jardunaldia: "Ingurumena Herri Administrazioan txertatzeko lehenengo urratsak", Ihobek antolatuta, etorkizunean ingurumen ziurtagiria (Ekoscan) eskuratze aldera informazioa biltzeko helburuarekin.

RSCren eskuliburuaren ezartze maila % 90 baino altuagoa da.

3.5.2. Arriskuak Kudeatzea

Arriskuak kudeatzea ezinbesteko lan tresna da erakunde batean bere kudeaketa sistema hobetzeko eta helburuak betetzeko; izan ere, arriskuen analisia du oinarri erabakiak hartzeko orduan.

Kudeaketa mota hau aurrera eramateko, erreferentzia gisa hartu da EAEko sektore publikoko erakunde, elkarte eta fundazioen barne kontrola ezartzeko eta garatzeko gidaliburua.

Seihileko honetan, ELIKAk une garrantzitsu hauek izan ditu:

- Kontrolak ezarri edo hobetze aldera ekintza planak zehaztea.
- Prozesuak berrikusteko planak ezartzea.
- Kontrolak berrikusteko planak ezartzea.

Eskuliburu honen ezartze maila % 100ekoa da.

3.6. Ekonomia eta aurrekontuaren bilakaera

Bigarren seihileko honetan aurrekontuaren % 56 bete dugu. Honela banatuta:

- % 46, langileen gastuak
- % 28, lanak, kanpoko hornidurak eta bestelako gastu batzuk
- % 26, gauzatutako proiektuak